



EBAZPENA, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena; honen bidez izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitara ematen dira, Langileriaren Kudeaketa zuzendaritzako administrazio-unitateek barematu beharreko merezimenduengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan (Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deituak).

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren 8. oinarriarekin bat etorri (Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deialdia egiten duena), honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Argitara ematea izangaiek merezimenduengatik lortutako behin-behineko puntuazioak, baldin eta meritu horiek barematzea Langileriaren Kudeaketa zuzendaritzako administrazio-unitateei badagokie (honako hauek izan ezik: etengabeko prestakuntza I. eranskineko III.1 atalaren eta II. eranskineko II. atalaren arabera; eta argitalpenak eta berrikuntza- eta esperimenduzko proiektuak II. eranskineko III.2.1 eta III.2.3 atalaren arabera).

Bigarrena.- Merezimendu horien bidez lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda hemen argitaratzea:

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Lehiaketa-fasea» – «Partziala».

Hirugarrena.- Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrendaren aurka, hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazio horiek Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Merezimenduak (UGP): erreklamazioak eta zuzenketak entregatzea».

Gasteizen, sinatzen den egunean.

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN

